



Ebazpena, 2022ko maiatzaren 10ekoa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, honako ebazpen hauen hutsak zuzentzen dituen: 2022ko otsailaren 2ko Ebazpena, zuzendari berarena, merezimenduen behin betiko puntuazioak argitara eman zituena –Baremazioa Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako unitateei dagokie–, eta 2022ko otsailaren 3ko Ebazpena, zuzendari berarena, lehiaketa-faseko puntuazio totalak argitara eman zituena (Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretan)

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretarako deia egin zen, baita espezialitate berriak eskuratzeko ere. Aginduaren 8.7 oinarrian zehaztutakoarekin bat etorriz, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko azaroaren 11ko Ebazpenaren bidez argitara eman ziren izangaien lehiaketa-faseko behin-behineko puntuazioak. Aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, zuzendari beraren 2022ko otsailaren 2ko Ebazpenaren bidez aurreko merezimenduen behin betiko puntuazioak argitaratu ziren. Halaber, zuzendari horren 2022ko otsailaren 3ko Ebazpenaren bidez, lehiaketa-faseko puntuazio totalak argitaratu ziren.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, administrazio publikoek errebokatu egin ditzakete kargak ezartzen dituzten edo inoren kalterako diren beren egintzak, eta zuzendu, ofizios edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Akatsa antzeman da María Justo Rodríguezi esleitutako lehiaketa-faseko behin betiko puntuazioan, zehazki merezimenduen baremoko II.1 atalean.

Beraz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 2ko Ebazpenean antzemandako akatsa zuzentzea. Ebazpen horren bidez, merezimenduen behin betiko puntuazioak argitaratu ziren (horien baremazioa Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako unitateei dagokie). Halaber, zuzendari beraren 2022ko otsailaren 3ko Ebazpenean antzemandako akatsa zuzentzea. Ebazpen horrek argitara eman zituen lehiaketa-faseko puntuazio totalak (Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduretan). Zuzenketa María Justo Rodríguez izangaiari dagokio, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Matematika espezialitatekoa. Zuzenketa honela egiten da:

II.1 atalean

1,500
esaten duen tokian,
1,000
esan behar du.

**II atalean**

2,000
esaten duen tokian,
1,500
esan behar du.

Guztizkoan

8,4540
esaten duen tokian,
7,9540
esan behar du.

Bigarrena.– Ebazpen hau ikusgai jarriko da Hezkuntza Sailaren web orrian:
<http://www.irakasle.eus> eta <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 10a

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO